



EHNA ERABILTZEKO KOMERTZIO GIDA KALEAN

EHNAren erabilpenerako Adunako, Anoetako, Asteasuko, Zizurkilgo eta Amasa-Villabonako gida aurkeztu dute 5

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Igandea
2008-04-06

VIURTEA 1.401 ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Xurdinen kontzertua izan zen Beotibar pilotalekuan ikusgai. N. GARZIA

Euskal Selekzioa eta Katalunia aurrez aurre, kick boxing-ean

VILLABONA Hilaren 12an izango da kirola eta aldarrikapena lotuko dituen erakustaldia 5



LT.

JUANTXO AGIRRE ARANZADI ELKARTEKO IDAZKARI NAGUSIA

«Aranzadi Zientzia Elkarteak beti esan izan du pentsatzen duena»

TOLOSA 1999 urtetik da tolosarra Aranzadiko idazkari nagusi; bihar berriro izendatuko dute 6-7

GIRO POLITA HITZAREN BOSGARREN URTEURRENEKO JAIAN

TOLOSALDEA ETA LEITZALDEA Adin guztiei zuzenduriko ekitaldiak izan ziren atzo arratsaldean eta gauean; jai giroa izan zen nagusi 4

Udaberri giroa izan zen bereziki nagusi atzo, larunbateroko azokan

TOLOSA Aurtengo lehenengo babak izan ziren aipatzekoak 3

Bidaia Agentzia
bidaide sercom grupo



EGIN ORAIN UDARAKO ZURE ERRESERBA ETA GOZA EZAZU
%15 ERAINKO DESKONTUAZ !!

Erniobea, 6 behea
VILLABONA
Tel.: 943 69 26 93



ileapaindegia berritua

har ezazu zure txanda
943 671 427



» **Uzturretik**

Ekain Garmendia

Lehenengoan, abioira sartu eta nire eserlekura nindoan, aurrean neska bat neukala (gaztea zen, hogueiren bat urte izango zituen, eta ez zen oso politta, ez dakit, sosa antzekoa). Haren eserleku parera iritsi ginenean bertan agure bat zegoela eserita ikusi

zuen, eta serio antzera esan zion, modu sekoan, hura bere lekua zela. Agureak segituan erantzun zion, xuabe eta irribarrez: «I know, I was waiting for you (badakit, zure zain nengoen)». Grazia egin zidan.

Abioi, tren eta bestelako garraio publikoak izango dira seguru asko erlazio sozialak modurik profilaktikoenan ematen diren tokiak; norberaren espazio propioa ondo markatuta dago horietan eta ez da zilegi bestearnean sartzea, kombertsazioak ere egu-

raldira mugatuta daude (gehienara eta hitz egitea nahitaezkoa denean). Horregatik egin zidan grazia erantzunak, hiruzpalau konbentzio hausten zituelako, eta hori modu goxoan egiten zuelako.

Lehenengo astean, gurasoekin Bartzelonako kaleetan nenbילה, musikari kubatar batzuekin egin genuen topo, kalean jotzen. Jende dezente zuten begira, denak geldirik, ehun eta hirurogei bat urte izango zituen agure ihar bat izan ezik (hori dantzan). Esan de-

zagun, ez zeukala erritmorako sen berezirik, dantza modu *kuriosoan* egiten zuela. Inguruko jendeak hari begiratzen zion orkestra kubatarrari baino gehiago. Ez dut uste jendea begira edukitzeak gehiegi inportaziozko hari.

Gure aitak sarri esaten duen gauza da urteekin edukazioari errespetua galtzen zaiola, eta egia izango da seguru asko. Horregatik uste dut egiazko punkiek lau-urogei urte dituztela, eta gazteagoak ez direla haien imitazio txarrak baino.

E **Eztabaida** info**Nora joan zara Aste Santuan?**

■ **Ainara** «Etxean geldituko naiz, herria zaintzen. Eta gustura! Lanera egun batzuetan ez joateak bizi pixka bat ematen du, ez?».

■ **Oroitx** «Eskiatzen ibili nahiz ta oso gustora, buelta berri zela baina zera zende pilak berrituta. muxu bat».


■ **Ainhoa** «Landetan izan naiz, gustura baina eguraldi txarra, ea maiatzeko zubian eguraldi hobea egiten duen...».

■ **Gorka** «Nik opor egunak beti aprobetxatzen ditut, ahal bada behintzat, etxetik kanpora joateko. Deskonektatzeko hoberena horixe, urrutira joatea eta betiko bizimoduaz ahaztea une batez bada ere. Horiek dira oporrak niretzat».

■ **Irene** «Aurten Belfastea joan naiz lagun batekin, eta oso ondo etorri zait. Lanen nahiko erreta neon, inork ezituen aguantatzen! Pena bukatu eiten diela».

■ **Jose Mari** «Aste Santuan hementxe geratu naiz, Euskal Herrian txangoak egiteko asmoa nuelako. Azkenean eguraldi oso txarra egin du eta ezin aprobetxatu, baina behintzat atsedena hartu dut, eta hori ere ona da. Ezta?».

■ **Xabier** «Ni Asturias aldean izan naiz. Bertan gurean bezala paraje politak daude, mendiak, hondartzak... Okerrena horixe, eguraldia ez dela oso ona izan».

**Z** **Zurea da hitza** info**Aizkardiren ibilaldiari buruz**

Villabona » Ez da egokia denbora gutxien egin duenari oihartzuna ematea, limitetik kanpo geratu baitzen.



Ibilaldiaren une bat. N.L.

AITOR

Kritikatxo bat egiteko baliatuko det zuen sekzio hau. Mendizale bat naiz, pasa den asteburuan Villabonako Aizkardi mendi elkarteak antolatu zuen mendi martxa egin nuen. Beti gustatu izan zait mendia baina lehen aldia zen horrelako ibilaldi bat egiten nuela. Oinarrietan helburuetako bat mendizaletasuna bultzatzea zela zioen, Villabona inguruko mendiak ezagutzera eta ibilaldi neurtua izango zela, hamar ordu ingurukoa.

Non nere sorpresan HITZAN irakurtzen dudanean azkarrenak zeintzuk izan diren. Lehenik eta behin, martxa neurtu batean hel-

gehiengo orduetatik kanpo gertatzen ziren. Orduan aipatu beharrik ez zegoen ez antolatzaileen partetik ez HITZAREN partetik. Martxa neurtu baterako marka horiek egin dituztenek ez dituzte egoki bete denborak. Gainera egunkarietan protagonismoa hartzen badute... Ez zait egoki iruditzen. Ez dakit zer pentsatuko duten martxa egin zuten beste mendizaleek.

Norbera libre da mendian nahi duen erritmoan ibiltzeko baina martxa hauek ez dira korrika ibiltzeko, konpetibitatea bultzatzen dute, hain zuzen martxek egin nahiez dutena, ezta? Jende horrek berak bakarrik entrenatu beharko luke mendian edota denbora hoberena egitea helburu duten probetan izena eman (Aizkorriko mendi maratokia bezalakoak dira horretarako egokiak), baina ez proba mota hauetan. Ez zait txukuna iruditzen jende askoren ilusioa marka hoberenera murriztea. Mila esker.

Leitzako alde zaharreko galtzada-harriak altxatzen hasi dira**LEITZAR BAT**

Leitzako alde zaharreko leku batzuetan galtzada-harriak altxatzen hasiak dira eta ondorioz, arriskutsua ere izan daiteke bertatik oinez igarotzea, beraz, moldatu edo berritu egin beharko lituzkete nire ustez.

Zenbait urte igaro dira dagoeneko herriko alde zaharreko galtzada-harriak jarri zituztela eta honezkerok batzuk altxatzen hasiak dira. Musunzarren aurrealdea, adibidez, ikaragarri gaizki dagoela esan beharra dago. Edozein egunetan herritarren batek min hartzeko moduan dago.

Beraz, nire ustez, egoera txarrean dauden herriko txoko horiek konpondu egin beharko lituzkete, berandu izan baino lehen, herritarren onerako baita.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAN jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900
zerbitzu iraunkorra

BULEGOAK: Andoain · Donostia (Bellatokia)
Errenteria (Bellatokia) · Hernani (Bellatokia)
Lasarte (Bellatokia-Sulabea) · Pasaja
Talosa (Bellatokia)

Udaberri giroa bereziki nabaritu zen larunbateroko azokan

Azoka » Aurtengo lehenengo babak izan ziren aipatzekoak; baita, espinaka, letxua, porrua eta azenarioa ere.

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka eguna oso alai suertatu zen eguzkia eta eguraldi ona zela eta. Postuetan animazio handia somatu genuen, eta salmentak horren arabera izan zirela esan dezakegu.

Produktuen artean, aipatzekoak aurtengo lehenengo babak, atzo aurkeztuak, 6 eurotan salduak, eta hauekin, ilarrak 12 eurotan salduak. Barazkien artean ere ikusitako produktuak oso itxura beteazuten, eta aipatzekotan, espinaka, letxua, porrua edo eta azenarioa aipatuko genuke.

Zizak eta onddoak ere saldu ziren. 40 bat kilo ziza 60 eurotan, eta 20 bat kilo onddo 30 eurotan.

Berdura plazan ere animazio handia izan zen. Apaingarriko landareen eskaintza izugarria, eta animazio handia baratzarako landareen postuetan.

» ATZOKO AZOKA

	Merk.	Gares.
Berdura plaza Landareak		
Alegria	1,00	1,20
Geranioa	2,00	-
Erromeroa	4,00	6,00
Xarbota	4,00	6,00
Klabeledina	2,80	4
Kalendula	2,50	-
Surfinia	2,40	-
Lobelina	4,50	-

Bertako produktuak Perretxikoak

Ziza	60	-
Onddoa	30	-
Fruta		
Matxakana	6,00	-
Urra	2,00	3,00
Intxaurra	2,50	4,00

Barazkiak

Babarrun zuria	8,00	10,00
Ilarra	12,00	-
Tomatea	2,00	4,00
Porruak	1,00	8,00
Tolosako babarruna	10,00	12,00
Kalabaza	1,50	3,00
Zainzuria	16,00	-

Gaztak

Gazta berria	16,00	-
Behi gazta	7,00	7,50

Produktu ekologikoak

Intxaurra	4,00	6,00
Azenarioa	2,00	2,50
Tipula	1,75	2,00
Aza	2,50	3,00
Ahuntz gazta	3,00	-
Mermelada	3,00	3,60

A Argazki zaharra



HITZAren urteurrena gogoan

TOLOSALDEA ETA LEITZALDEA » TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK 5 urte bete ditu aurtun, eta hori dela-eta hainbat ekitaldi antolatu ditu. Atzo, esaterako, haurrentzat nahiz helduentzat izan ziren ekitaldiak. Duela bost urte ere, irudian ikus dezakegun bezala, HITZAK kontzertu berezia

antolatu zuen eskualdeko egunkariaren bigarren urteurrena zela-eta. 2003ko abenduaren 18an izan zen. Fermin Muguruza eta Kontrabandak kontzertua eskaini zuten Ferialekuan. Jende ugari bildu zen bertan, 700 lagun inguru, eta guztiek ederki gozatu zuten urteurrenean. **IE**

B Blogteka info

Adimen emozionaleko hitzaldia Laskorainean

Laskorain Ikastolak, adimen emozionalean aditua den Jose Antonio Gonzalez jaunaren eskutik, bi hitzaldi antolatu ditu. Lehena apirilaren 9an, Usabalgo Areto Nagusian izango da 19:00etan, eta bigarren hitzaldia maiatzaren 10an izango da.

Solasaldiaren helburua gurasoei tresna aukera ugari eskaintzea izango da, seme-alabekin harreman onak bidera ditzaten eta pertsona osasuntsu, autonomo, era-

ginkor eta zoriotsu izaten lagun diezaieten. Garatuko diren atal nagusiak honako hauek izango dira: Adimena, arrakasta eta ongizatearen definizioa; Adimenaren zen-



Jose Antonio Gonzalez. I.T.

tzu berria XXI. mendean; *Seis sombreros para pensar* metodoaren aurkezpena, gure seme-alabekin izaten ditugun elkarrizketarako; Egunerokotasunean kontuan izateko ohar praktikoen bilduma.

Ikusten duzuen bezala hizketa-diaren edukia interesgarria ez ezik guztiz lagungarria ere izan daiteke gure seme-alaben heziketa prozesuan. Jaso ezazue, beraz, gure gonbitea eta etor zaitezte hitzaldira.

Laskorain ikastolaren bloga
<http://www.tolosaldekohitza.info/blogak/laskorain/>

Ipuinak entzungai Goiko Irratian

Datorren asteazkenean hasita, euskarazko ipuinak botatzen hasiko gara Goiko Irratian (107 FM), bai haurrei bai eta gurasoei zuzenduta. Asteazken arratsaldero, 20:00etan, eta larunbat goizero, 10:00etan, Hirukideko ikasleek eginiko ipuinak zein bestelakoak entzun ahal izango dituzue irratia- ren bidez.

Hirukide ikastetxearen bloga
<http://www.tolosaldekohitza.info/blogak/>

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Poneya.** Poney bat saltzen dut. Interesatuak dei dezatela ondorengo telefono zenbakira: 605 71 99 33.

■ **Autoa.** Peugeot 306 HDI 2.0. 2002 urtekoa. 140.000 kilometro. Egoera onean. Interesatuak deitu 675 702 815 telefono zenbakira.

■ **Txakurkumeak.** Border Collie

arrazako txakurkumeak salgai. Interesatuak dei dezatela 653 71 12 59 telefono zenbakira.

LANA

■ **Etxeko lanak.** Esperientziadun emakumea, interna moduan etxeko lanak egiteko eskaintzen da. Interesatuak dei dezatela 646 76 39 34 telefono zenbakira.

BERRIAK kazetari bat behar du Andoaingo egoitzarako (erref. 08403)

Eskaintzen da:

- Urtebeteko kontratua (luza daiteke)
- Etorbizuneko proiektu batean parte hartzeko aukera

Eskatzen da:

- Kazetaritza ikasketak izatea

Kontuan hartuko da:

- Kazetaritza lanetan esperientzia izatea
- Quark X Press programa erabiltzen jakitea
- Autoa izatea
- Hizkuntzak jakitea

Bidali zure curriculumak gb@berria.info helbide elektronikora, erreferentzia zehaztuz.

URTE ASKOAN!

Tolosa » HITZAren bosgarren urteurrena ospatu zuten atzo Xurdinen kontzertuarekin, mus txapelketa azkarrarekin eta Oargin egindako bertso-afariarekin.

ERREDAKZIOA

Atzo TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA eskualdeko egunkariaren bosgarren urteurrena ospatu zuten. Horretarako haurrentzat, gazteentzat eta helduentzako ekitaldiak antolatu zituzten.

Arratsaldeko 17:00etan Xurdirin eta bere lagunak azken emanaldia ikusteko aukera izan zuten Beotibarrera bertaratu zirenek. Sointek ekoizpen etxearen eskutik *Xurdinen kontzertua* emanaldia ikusi ahal izan zuten eta bertan Xurdirin ipotx urdinaren eta bere lagun Zirri Borro, Haize der eta Dofasol jaunaren istorioak kontatu zituzten.

Mus txapelketa

Ondoren, 18:00etan, mus txapelketa azkarra jokatu zuten Oargi mendiko elkartean goiztzen. Irabazleek Tolosako Isastegieta sagardotegian afaria eraman zuten sari gisa eta bigarren eta hirugarren geratu zirenei HITZAko materiala banatu zitzaizkien.

Parte hartu zuten jokalarjetatik finalera pasa zirenak Jon Zipritia



Xurdinen azkeneko lanaz gozatzeko aukera izan zuten atzo umek Beotibar Pilotalekuan. N. GARZIA



Mus txapelketako irabazleek Tolosako Isastegieta sagardotegian afari bat irabazi zuten. N. GARZIA

eta Manex Kortejarena eta Ioritz Artega eta Ibai Sagastume izan ziren. Haien artean, beraz, jokatu zen HITZA bere ospakizun-ekitaldien barruan antolatu zuten mus txapelketako finala.

Bertso-afaria

Gauean Oargi mendiko elkartean egindako bertso-afarian 60 lagun inguru elkartu ziren, guztiak Tolosaldekoak eta Leitzaldekoak. Afarian, gainera, bertsoan aritu ziren ondorengo bertsolariak: Amaia Agirre billabonatarra, Jexux Mari Irazu larrauldarra eta Diego Riaño leitzarria, eta Asier Imaz kazetaria izan zen gai-jartzailea. Ondoren, afalostean, jaiari amaiera emateko, trikitilariekin kalejira egin zuten Tolosako kaleetan zehar, eta hauen laguntzarekin poteo herrikoia egin zuten Alde Zaharreko tabernetan.

Euskarazko komunikabideei buruzko mahai-ingurua

HITZAren bosgarren urteurrena ospatzeko ekitaldien artean, azkenekoa datorren asteazkenean Tolosako Udako Pleno aretoan egingo den mahai-ingurua izango da. 19:30ean hasiko da eta bertan izango dira Martxelo Otamendi *Berría* egunkariko zuzendaria, ETBko al-bistegietako buru den Jaime Otamendi, Joxemi Saizar HITZAren zuzendari ohia, eta Jon Miranda Txolarre Irratiko arduraduna. Beraz, oraindik ere badira egunkariaren urteurrenaren harira antolaturiko ekitaldiak, eta noski, herritar guztiak daude gonbidatuta parte hartzera.



Umeak ere bertsoan hagitz trebeak

LIZARTZA » Atzo Bertso Eskolaren Eguna ospatu zuten goizetik hasita. 12:00etan herriko umek emanaldi bat egin zuten aretoa jendez lepo zegoela eta ondoren 1,2,3... *Inaxito* bertso-antzerkia ikusteko aukera

izan zuten. Honela, ordubetez bertako umek irudimena lantzeko aukera izan zuten, eta honi esker, besteak beste atzo Lizartzak hondartza txiki bat ere izan zuten. Gauean bertso saioa izan zen. HITZA



Herriko bazterrak alaituz

ASTEASU » Asteasuko Usarrabi Kantu Abesbatzak hirugarren urtez Asteasuko kaleetan zehar kantuan ari zen atzo eta hauekin batera trikitilarilak eta pandero joleak joan ziren. Kantuan aritu ziren bitartean gitarra eta biolinaren laguntza izan zuten. 12:30ak aldera agertu ziren plazara elkartean gosalduta ondoren. Gero kaleetan zehar bira egin zuten. N. URBIZU

Kick boxing lehia izango da Euskal Selekzioaren eta Kataluniaren artean

Villabona » Euskal Herriko kick boxing taldea, ESAIT, Villabonako Udala eta Bai Euskal Herriari arduratu dira hilaren 12ko ekitaldiaz.

ERREDAKZIOA

Euskal Herria-Katalunia kick boxing lehia edo erakustaldia antolatu dute datorren larunbaterako, hilaren 12rako, alegia. Euskal Herriko kick boxing taldeko, Bai Euskal Herriari ekimeneko ESAITeko eta ordezkariak eta Villabonako Maixabel Arrieta alkatea izan ziren atzoko aurkezpenean, hainbat zinegotzirekin batera.

Kick boxingeko kirolaririk onenariakoak izango dira Villabonan datorren astean. Euskal Herriko selekzioa Kataluniakoaren aurka ariko da: guztira 12 mutil, maila gorenekoak gainera, izan ere lorpen garrantzitsuak daukate: Europako txapelduna, Frantziako txapelduna, edota Euskal Herriko txapelduna. Hauek dira Euskal Herrikoak izango direnak: Ander Azurmendi, Iñigo Ezeizabarrena, Stephane Susperregi, Aitor Eguzkiza, Jon Ibazeta eta Erik Sunsnaga.

ESAIT eta Bai Euskal Herriaren azterketa

Naroa Geresta Bai Euskal Herriari ekimeneko kideak ESAIT eta Bai Euskal Herriaren azterketa irakurri zuen. Bertan, beste aipamenen artean, Euskal Herria «nazio



Eserita, ezker-eskuin: Mikel Uzkudun, Naroa Geresta, Aitor Eguzkiza, Borja Mendioroz eta Maixabel Arrieta. N. URIBIZU

EUSKAL SELEKZIOEN ALDEKO MANIFESTUA

Villabonako atzoko prentsaurrekoan, Naroa Gerestaren irakurketaren ondoren, Aitor Eguzkiza Europako kick boxing txapeldunak eta Borja Mendioroz entrenatzaileak euskal selekzioen aldeko manifestua irakurri zuten, euskaraz eta gaztelez.

1- Gaur egun, gure herriari, Euskal Herriari, ez zaio aitortzen selekzio propioa izateko eskubidea. Horren ondorioz, euskal kirolariok ezin dugu parte hartu euskal selekzioarekin nazioarteko txapelketetan. Gainera, federazioen diziplinaren eraginez, sentitzen ez ditugun koloreekin parte hartzeko behartuta gaude, alegia, Espainia-ko eta Frantziako estatuen ordezkari.

2- Gu, euskal kirolari gisa, gure koloreen ordezkari eta gure ereserkiak entzunez lehiatu ahal izatea aldarrikatzen dugu. Hori dela eta, nazioarteko txapelketa ofizialekin parte hartzeko eskubide kolektiboan oinarritutako Euskal Selekzioaren ofizialtasuna aldarrikatzen dugu.

3- Euskal Herri osoa ordezkatzeko duen selekzioa nahi dugu, eta horretarako, Euskal Herriko Federazio Nazionalak behar ditugu.

4- Denon laguntza beharrezkoa da. Eta, horregatik, lan egin dezagun gaur amets dena lehenbailehen gauzatu dadin.

Gora Euskal Herriko selekzioa! Gora Euskal Herriko federazio nazionalak!

» EGITARAUA

- **Eguna.** Apirilak 12, larunbata.
- **Kalejira.** 16:30ean kalejira plaza-tik abiatuta, nazio bat selekzio bat lelopean.
- **Kick boxing ikuskizun-lehia.** Euskal Herriko eta Kataluniako selekzioa aurrez aurre.
- **Oharra.** Txartelak Villabonako Obaban salgai.

bat da gure nortasuna, hizkuntza, historia, hezkuntza eta gure kirola sentitu eta bizi dugulako» gogoratzen zuen, gehituz, ondoren, «selekzio bat Euskal Herria nazio izaki, euskal herritarrok gure burua euskal herritar gisa munduaren aurrean agertzeko eskubidea dugulako, eta ez dugulako besteren beharrik nor garen eta zer garen munduaren aurrean agertzeko».

Bukatzeko, politikoei zuzendu zitzaizkien, esanez kirolariei «bere kirolean onenak izatea exijitzen zaion bezala, politikariei berbera» eskatzen dietela. Bide batez, «has daitezela Euskal Herriko Kirol Federazioak sortzetik bihar, kirol federazio nazioaletatik osaturiko selekzio nazionalak, nazioartean ofizialki jokatu dezaten».

Txartelak salgai

Villabonan datorren larunbatean, hilaren 12an, hain zuzen, ez da bakarrik kick boxing ikusteko aukera izango, aurretik (16:30ean) herriko kaleetan zehar kalejira bat egingo baitute nazio bat selekzio bat lelopean. Plazatik abiatuko dira eta kaleetan zehar banatuko dira. Kick boxing-a 18:00etan hasiko da.

Kiroldegira kick boxing ikustera joateko asmoa duenak sarrerak salgai dauka Obaban. Bestela, Hermaniko Zumitzan eta Kuraian, ere badira.


EHNAREN erabilpenerako komertzio gida kalean

Villabona » Anoetako, Amasa-Villabona, Aduna, Zizurkilgo eta Asteasuko komertzioen zerrenda aurkeztu zuten atzo.

ERREDAKZIOA

Ostiralean iluntzean Villabonako Gurea aretoan EHNAREN erabilpenerako Adunako, Anoetako, Asteasu, Zizurkilgo eta Amasa-Villabonako komertzio gida aurkeztu zuten ekitaldi baten bidez: bertsoak, txalapartariak, kantuak eta Agurra ere izan ziren eskualdekoen eskutik.

Bai Euskal Herriari herriekimena osatzen dutenen izenean «poza» agertu nahi izan dute, «asko izan baitira EHNari Euskal Herriari bai esan dioten komertzio, giza talde eta eragileak eta horrek poza ematen digu». Tolosaldeko Amasa-Villabonako, Astea-



Ekitaldia bukatzeko atxikimendua adierazi zutenak taularatu ziren. HITZA

suko, Anoetako, Zizurkilgo eta Adunako 80 komertzio baino gehiagotan erabili daiteke EHN, eta gidan horiek agertzen dira.

EHNAREN erabilpena

Bai Euskal Herriari ekimeneko kide batek EHNAREN erabilpena gogoratu zuen, «tresna honen ga-

rrantzia» azpimarratuz: «Euskal Herritarren izatea eta nortasuna munduaren aurrean agertzeko da eta norberak bere borondatez eskuratzen den tresna da.

Bide batez, Tolosaldean hartu duen «babes handia» ere hitz egin zuen. Gida hau, etxetz etxetan banatuko dute. Pello Gaskon Udal-

biltzako naziotasun arloko ardura ere han izan zen. Bukatzeko, argazkia egin zuten bertaratu zirenek Agurra dantzatu ondoren.

EHNA non eta noiz tramitatu

EHNA egin ahal izateko Amasa-Villabonako Udaletxean, Anoetakoan eta Zizurkilgoan 09:00etatik

14:00etara egitea izango da posible. Asteasun, berriz, 18:00etatik 20:00etara bitartean. Beti bezala, hiru argazki koloretan, erroldagiria (Udaletxean eskatu behar da) eta 15 euro ordaindu behar da.

Aldez aurretik ekitaldia antolatu zutenek eskerrak eman zituzten bertaratu ziren guztiei.

TOLOSAKO EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA

Telefona: 943651063
Webgunea: www.samaniego-tolosa.com
Posta elektronikoa: 012244aa@hezkuntza.net

samaniego

- HAUR HEZKUNTZA (2 URTEK HASITA)
- LEHEN HEZKUNTZA

07:30etik aurrera
Haur txokoa

Telefona: 943651387
Webgunea: www.orixe.net
Posta elektronikoa: 012980aa@hezkuntza.net

OR XE

- DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA
- ZEREGINEN IKASKUNTZAKO GELA
- LAN HASTAPEN EGOKITUA
- BATXILERGOAK

D EREdua - KALITATEZKO IRAKASKUNTZA
MATRIKULA EPEA: MARTXOAREN 31etik APirilAREN 11ra

E Elkarrizketa**JUANTXO AGIRRE MAULEON** › Aranzadi Zientzia Elkarteko idazkari nagusia

Tolosa » Aranzadik 60 urte bete ditu duela hilabete gutxi. Azken urteotan azpiegitura profesionalizatu du, eta ohiko jarduera biziari eusten dio egoitza berritzen duen artean.

XABIER MARTIN (BERRIA)

Dela etnografian, dela arkeologian, dela antropologian, hamaika proiektu kudeatzen ditu Aranzadi Zientzi Elkartek. Horien artean, Praileaitz da gehien mahairatu den mintzagaia Zorroagako egoitzan azken hilabeteetan. Aranzadi eta Kultura Sailaren arteko harremana ez dago une gozoan. Batetik, Praileaitzen auzian ez datoz bat, eta, bestetik, arkeologia gaien gordetegia Aranzadiren egoitzatik ateratzea erabaki zuen Azkarate-ren sailak iaz. Gai horiek eta beste hainbat jorratu ditu Juantxo Agirre Mauleonek (Tolosa, 1965). 1999tik da Aranzadiko idazkari nagusia, eta bihar, 2012ra arte kargu horretan mantentzeko izendatuko dute.

Praileaitzeko auzia sortu zenetik, hainbat aldi izan dira. Zertan da auzia une honetan?

Ikerlarien aldia da hau. Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Sailari proposamena egin genion, koban eta haren ingurunean azterketasakon bat egiteko, eta, Maria Jesus Aranbururen oniritziz, lanean ari gara Aranzadiko arkeologo taldea eta beste hainbat aditu. Emaitzek zehaztuko dituzte gure irizpideak, orain arte ezagun ez diren zenbait alor ezagutuko ditugulako. Ingurunea zenbat eta hobeto ezagutu, gertuago egongo gara irtenbidetik.

Zer da zehaztasun handiagoz ezagutu nahi dena?

Oso azterketa sakona da hau, inguruan beste kobarik dagoen jakin nahi dugu, eta hor aztarnategirik dagoen; Praileaitz haitzuloaren mugak, alegia galeriak, noraino iristen diren ere jakin nahi dugu, oraindik kobazuloa bera ez baitago zehaztasunez mugatuta. Era berean, ezagutza horrek arazoa mugatuko du, eta, nire ustez, haitzuloa uste baino handiagoa izango da, baliteke hala izatea, eta legeak koba osoa babesten duela ezin da ahaztu.

Baina martxan den azterketatik aparte, Aranzadik plazaratu du jada bere iritzia Praileaitzen inguruan, zalantza gutxiko iritzia.

Aranzadik erakunde modura duen irizpidea argia da: jada ezagutzen duguna nahikoa da esateko Praileaitzeko koba eta inguruko mendi hegal osoa babestu behar dela. Guk ez dugu esan harrobia geratu behar denik, baina bai mendia malda osoa babestu behar dela. Eta hor gabiltzalanean, Diputazioari esker eta Debako Udala-



IMANOL OTEGI/ARGAZKI PRESS

«Orain eta lehen, Aranzadik beti esan izan du pentsatzen duena»

ren laguntzari esker. Harrobiak ere lanean jarraitzen du... Edonola ere, Aranzadiren lana da bere metodologiarekin zintzo izatea eta gure erakundeei eta herriari pentsatzen duguna eta ikusten duguna esatea.

«Praileaitz orduan eta gehiago ezagutu orduan eta gertuago egongo gara irtenbidetik»

«Ezagutzen duguna nahikoa da Praileaitz babestu behar dugula esateko»

«Praileaitzen auziak Kultura Sailarekin ditugun harremanak zaildu ditu»

Bien bitartean harrobiak lanean jarraitzen du, Kultura Sailak emandako babes dekretuan oinarrituta; dekretu harekin ez dator bat Aranzadi.

Miren Azkarate sailburuarekin ez gatoz bat hainbat alorretan. Guk idatziz aurkeztu dizkiogu Jaurilaritzari gure iradokizunak eta proposamenak alor horretan. Alegazio uneari erreparatzen diote haiek, baina handik astebetetera guk txosten bat aurkeztu genuen, eta Kultura Sailak ez zuen aintzat hartu.

lazko abenduaren 14ko osoko bilkuran EAJ bakarrik geratu zen Eusko Legebiltzarrean, Praileaitzen kontserbazioaren inguruko eztabaidan. EAJko Luke Uribe-Etxebarriak gogor hitz egin zuen Aranzadiren aurka. «Dezpezioa» eta «manipulazioa alarma soziala sortzeko» aipatu zituen. Nola daude Kultura Sailaren eta Aranzadiren arteko harremanak?

Luke Uribe-Etxebarria jaunarekin oso harreman onak ditugu, 36ko gerraren alorrean elkarlanean ari garelako; haren senitarteko bat fusilatu egin zuten, izan ere. Baina politikariren hizkera ez da gurea, eta gu, zientzialari garen aldetik, ez gara horretan sartuko. Nolanahi ere, orain eta lehen, Aranzadik beti esan izan du pentsatzen duena, bere hasierako printzipioei helduz. Bere garaian Debako zentral nuklearraren inguruan gure irizpide zorrotza bota genuen, eta orain bezala, orduko erakundeen ordezkariak gure aurka jarri ziren. Kasu gehiago daude: Ekain aurkitu zenean, 1969an, inguruko hainbat alkatek hura turismoari zabaltzea nahi izan zuten, eta Aranzadi aurka jarri zen. Zer gertatu zitzaigun? Garai hartako Espainiako ministerioak Aranzadiri Gipuzkoako indusketa arkeologikoen komisariotza kendu zioela.

Eta orainaldira itzulita, zertan da Kultura Sailarekin daukaguen harremana?

Praileaitzen auziak gure arteko

harremanak zailagoak egin ditu. Azken batean, Miren Azkaraterentzat hau harri handia da bidearen erdian. Haren agintaldian auzi honek beti izango du oihartzun handia, baina guk pentsatzen duguna baino ez dugu esan, eta Eusko Legebiltzarreko beste taldeek ere euren iritzia eman dute. Hau da, gure herriaren ordezkariak nagusi batek zer esan duen badakigu, baita kultur eragileek eta nazioarteko hainbat adituk ere zer esan duten. Begira, Iruñeko Gaztelu plazako aztarnategiaren afera beti egongo da lotuta Juan Ramon Corpas Mauleon orduko Nafarroako Kultura kontseilariarekin. Hala, Miren Azkarateren ibilbide politikoan Praileaitzen auzia erreferente bat izango da.

Bestalde, Gipuzkoako arkeologia gaien gordetegia atera du berriki Kultura Sailak zuen egoitzatik. Horrek ez du askorik lagundu egoera hobetzen, ezta?

Gai horrek are zailagoak egin ditu harremanak. Azken 60 urteetan Aranzadiren eginkizuna izan da Gipuzkoan aurkitutako aztarna arkeologikoak gordetzea. Duela hamar urte, Roman Suduperi esritzari gure iradokizunak eta proposamenak alor horretan. Alegazio uneari erreparatzen diote haiek, baina handik astebetetera guk txosten bat aurkeztu genuen, eta Kultura Sailak ez zuen aintzat hartu.

Ekain, Santimamiñe eta Altzerri

Gizateriaren Ondare izendatuko ditu Unescok beharbada. Uztailean jakinaraziko dute erabakia. Zertarako balio du horrek?

Izendapen horrek esan nahi du Europako gizarteak balioa ematen diela haizulo horiei, baita babes

«Azken 60 urteetan Aranzadiren lana izan da Gipuzkoan aurkitutako aztarnak gordetzea»

«Orain Kultura Sailak aurkikuntza horiek guztiak Urnietako pabiloi batean utzi ditu»

«Geroan, unibertsitatean lan egin behar dugula badakigu, beste hainbat ikerkuntza zentzorekin»

juridikoa ere. Gainera, erraztu egiten du diru laguntzak lortzea. Baina laguntzak erakartzeko, aurretik hemengo instituzioen estrategia egoki bat egon behar du, Jaurilaritzaren, diputazioena eta udalena. Erakundeek ez badute aurretik euren baliabide ekonomikoak jartzen, gizateriaren ondarearen izendapena garrantzitsua izango da, baina besterik gabe.

Aranzadik historiaurreko aztarnategi asko kudeatzen ditu. Zein lan nabarmen daiteke une hone-tan?

Aranzadi izan da urtetan erreferente nagusia, baina gaur egun bada beste hainbat, eta haiek elkarlanean gabilta. Esaterako, EHUko Historiaurreko Saila oso garrantzitsua da. Bestalde, Jesus

Sesma eta Txus Garcia erreferentzia dira Nafarroan Neolitoari dagokionez; Joseba Rios ere lan polita egiten ari da Axlorren Neanderthalen eremua jorratzen. Bestalde, Lezetxiki oso garrantzitsua da Aranzadirentzat; giza aztarna zaharrenak han daude. Irikaitz ere nabarmendu behar da; harrien lanketan erreferente da hura.

Ikerketa lan horietan nahikoa laguntzen al dute erakunde publikoak?

Gipuzkoan beharbada bai, Foru Aldundiaren kasua; gainontzeko lurraldeetan ez dute hainbeste laguntzen. Ematen du Araban gauzak aldatzen hasi direla.

Baina museoak non-nahi azaltzen ari dira...

Jakina, diru laguntzak bideratzen dituzte baldin eta tartean museo proiektu bat badago. Guk errebendikatzen dugu aurrehistorialari onak ditugula, gazteak eta sistematikoak, baina ikerkuntzak etekin ekonomikoa ez, etekin kulturala ematen du, eta, horregatik, ez dago hainbeste baliabide.

Santimamiñe, Ekain, Altzerri...

XX. mendea aurkikuntza handien aroa izan zen. Bukatu al da hori? Lascaux eta Altamiraren artean kokatua dagoen arren, Euskal Herriaren ez ote da beste aurkikuntza handirik izango?

Arkeologiak ez du mugarik. Sekula ez dugu jakingo noiz aterako den beste aztarnategi bat. Tomas Ataurrik, Ekain aurkitu baino urte batzuk lehenago, elkarrizketa batean esan zuen Gipuzkoan haizulo bat aurkituko zela margoekin. Eta atara zen. Gero Altzerri etorri zen.

Diego Garate eta Marcos Garcia-labar artean doktoreekin hitz egin nuen duela gutxi, eta haiek diote oraindik ere azaldu behar duela beste haizuloren bat margoekin. Akaso zain dago, lur eta harri tona askoren azpian. Erakundeek martxan jartzen badituzte prebentzio neurriak, zergatik ez da aurkituko? Harrobiak kare haizetan egiten dira, eta non kontserbatzen dira haizuloak? Bada kare haizetan.

Erromatarren garaira jauzi egin, ematen du gero eta aztarna gehiago azaltzen ari direla euskal kostaldean, teoria zaharrak alde batera utziz.

Orain ez, aspaldian baztertu zen erromatarrek Euskal Herrian sartu ez zirelako teoria hori; gero eta aztarna gehiago azaltzen ari dira, Zarautzen, Irunen, Foruan... Baina zailagoa da azaltzea zergatik eutsi zaien euskarari. Gure nortasunari eta hizkuntzari zergatik eutsi diogun beste aldagai batzuekin azaldu behar da.

Erromatar garaiko aztarnategi garrantzitsuenetako dugu Iruñia-Veleia. Euskarazko aurreneko hitz ez-onomastikoak han azaldu direla ere esan dute, izugarriko ezustea. Mundu akademikoan bada eszeptismoa berri horren inguruan. Zer dio Aranzadik?

Guk ez dugu ardurarik Iruñia-Veleian. Lan txalagarria egin dute orain arte, eta oso interes handiarekin jarraitzen ari gara ikerketa, baita gaia inguruan beste hainbat aditu zer esaten ari diren ere. Batzuetan kezka ere sortzen zaigu ematen ari den irudiarengatik, eta are gehiago gehien maite dugunak eztabaidatzen ari garelako: euskaraz. Zubialden duela hainbat urte aurkitutako labar margo haien auziak kezkatu ninduen, baina honek gehiago, orain gure altxorarekin ari garelako jolasean. Emaitzak atera arte, zain egongo gara.

Nondik jo behar du Aranzadik etorkizunean, nola ikusten duzu elkarte datozen urteetan?

Zorroagako egoitzan zentralizatu gara. Arbidetako utzita, baina ez dugu mugarik proiektuei dagokionez, berdin ari gara Guatemalan eta Nafarroan, eta, hala, Iruñerrian beste egoitza bat eraikitzen ari gara, Aranguren ibarrean. Geroan unibertsitateekin lan egin behar dugula badakigu, beste hainbat ikerkuntza zentzorekin, baita auzolanaren bidea garatu behar dugula ere, gazteekin batez ere.

1999tik Aranzadiko idazkari nagusia zara. Martxoan dituzue hauteskundeak, lau urteko beste legealdi baterako. Jarraitzeko asmorik bai?

Ez dut baztertzeko aukera bat jarraitzea, gainontzekoek hala erabakitzen badute. Ez da lan erraza; hau guztion proiektua da, baina Euskal Herrian gaude, herri konplexu batean. Zatiketaren gainean, ordea, nik babes handia aurkitu dut proiektu erakargarri bat gartzeko.



IMANOL OTEGI/ARGAZKI PRESS



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**



Opor egun politak Parisen

LEIRE ZABALA (TOLOSA) • VII. Hitza Argazki Lehiaketarako irudi hau bidali digu Leire Zabalak: «Aurtengo Aste Santuan familiakoak Parisera joan gara. Bertan gauza

asko ikusi ditugu. Argazkian, Pariseko bi leku azaltzen dira: Eiffel dorrea eta Sena ibaiko zubi baten urrezko koloma disdiratsua. Oso opor politak pasa ditugu!».

A Agenda

Erakusketak

■ **Tolosa.** Angel Arberen *Biogeometriak* erakusketa Aranburun.

Zinema

- **Tolosa.** *No es pais para viejos* filma, gaur, 19:30etan eta 22:00etan, eta bihar 20:30ean.
- **Tolosa.** *Winkyren zaldia* haurrentzako filma emango dute Leidor aretoan 17:00etan.
- **Villabona.** Haur zein helduentzako 10.000 A.C. filma, gaur 17:00etan eta 19:30ean, eta bihar 21:30ean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- Gaur**
- **Tolosa.** Azpiroz, L. Amarotz auzoa, 9. 943 67 5118.
- **Leitza.** Campos, M. Z. Elbarren, 52. 112.
- Bihar**
- **Ibarra.** Ugarte, M.T. Euskal Herria, 48. 943 67 32 74.
- **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneri eta iritzien erantzunik.

A Agurrak



Urte askoan!

Peru Oreja Zubeltzu (Tolosa).
Gaur 3 urte. Zorionak eta muxu handi bat etxekoan partetik.



Urte askoan!

Maria Dolores Saizar (Tolosa).
Bihar urteak. Zorionak eta muxu handi bat guztion partetik.

Irurako Ikastola

- (2-9 URTE)
- Lehen Hezkuntza

'HAZI ETA HEZI HERRIAN BERTAN'



San Migel, 5 • 20271 IRURA • Tel.: 943 69 43 74 • irura@ikastola.net



- 2 urteko gela, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta D.B.H.
- Kalitatezko hezkuntza euskalduna
- Eguneratua eta irekia
- Denen artean bultzatua eta zuzendua



MATRIKULA EPEA:
Martxoaren 31tik
apirilaren 11ra arte

Matrikulazio Ordutegia:
© 943 65 46 13-65 29 32
9:00-13:00 - 15:00-18:00
anoeta@ikastola.net



VILLABONAKO HEZKUNTZA PUBLIKOA

JANGELA • GARRAIOA • ORIENTAZIOA • GURASO ESKOLA



Fleming Ikastetxea.
Haur Hezkuntza Arroan (2-6 urte)
Lehen Hezkuntza Arratzainen (6-12 urte)
Tel.: 943 69 35 12 • Tel./Faxa: 943 69 1413
012277aa@hezkuntza.net

Matrikulazio
epea:

Martxoaren 31tik
Apirilaren 11ra arte



Ernioe B.H.I. Villabona
Ernioe B.H.I. Ikastetxea.
Derrigorrezko Bigarren hezkuntza
Arratzainen (12-16 urte)
Tel.-faxa: 943 69 37 33
012952aa@hezkuntza.net